

¡ORI GRİÑA!



Gizon ordi bat arkiturikan
 azkeneko orduetan,
 zentzua joan ta gelditurikan
 sendakiñen eskuetan,
 onek zentzua ekarri nairik
 inondikan albazezan,
 «ozpiñ piškabat onera azkar»
 ojuka asi omen zan;
 bañan ozpiñik ez topaturik
 ango inguru denetan,
 andre on batek ekarri zuen
aguardinta bonbilletan;
 ta sendakiñak jarri zionean
 gaišoari sudurretan,
 edariaren usayarekin
 beregandutzen ote zan,
 dio gizonak itz motel eta
 oso penagarriyetan:
 —sendakiñ jauna: ¿zertan jartzen dit
 bonbill ori sudurretan?
 ¡jarri mesedez berašiago!...
 ¡jarri bezait ezpañetan!...

ENRIKE ELIZECHEA.

